

Lantegi Batuak-en Barneko Komunikazio-kanalaren —Kanal— Pribatutasun-politika. (Datu pertsonalen babesa)

Pribatutasun-politika hau Lantegi Batuak Fundazioaren "Kanal" Barneko Komunikazio-kanalari aplikatzen zaio, erakundeak eskura jarritako edozein komunikazio-sistematarako, dela telefonoz, dela idatziz.

Mesedez, irakurri politika hau arretaz, zure datu pertsonalen erabilerari eta arlo horretako indarreko araudiaren arabera aitortuta dituzun eskubideei buruzko informazio garrantzitsua baitakar.

Politika hau Intralaneko gure barne-atarian argitaratuta dago, bai eta Lantegi Batuak-en webgunean ere, zehazki Etika eta Gardentasuna atalean.

Komunikazio bat egiten duten pertsonak bermatuko dute emandako datu pertsonalak egiazkoak, zehatzak, osoak eta eguneratuak direla, eta datuetan gertatzen den edozein aldaketaren berri emango dute. Komunikazio faltsu edo asmo txarrekoengatik dagozkien zigorrak ezar daitezke, indarreko ordenamenduaren arabera sor daitezkeen erantzukizun zibil edo penalak alde batera utzi gabe.

Oro har, ahalik eta informazio gehien emateko eskatzen da, zure komunikazioa izapidetu ahal izateko. Gure pribatutasun-politika hau edozein unetan egunera dezakegu, enpresa-erabakiak direla kausa, baita legeetan edo jurisprudentzian izan daitezkeen aldaketetara egokitzeko ere.

NOR DA ZURE DATUEN ERABILERAREN ARDURADUNA?

Datu pertsonalen erabileraren arduraduna Lantegi Batuak Fundazioa da, helbidea Txorierrri Etorbidea 12, 48180 Loiu, Bizkaia duena, zeinak datuak segurtasunez eta konfidentziasunez erabiliko direla bermatzen duen, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (DBEO), Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta aplikatzekoa den beste edozein arauditan xedatutakoaren arabera.

ZEIN HELBURUREKIN ERABILTZEN DITUGU ZURE DATU PERTSONALAK?

Lantegi Batuak Fundazioak Gorabeherak Jakinarazteko duen Barne-kanalaren (Kanal) bidez helarazitako gorabeherak eta kontsultak kudeatzeko, ikertzeko eta erantzuteko, kasuaren arabera. Zure datu pertsonalak helburu horiekin lotutako eginkizunak betetzen dituzten pertsonak baino ez dituzte eskuratuko, eta betiere Lantegi Batuak Fundazioaren Barneko Komunikazio-kanalaren prozeduraren arabera.

Datu pertsonalak, baita emandako gainerako informazioa ere, konfidentziasunez erabiliko dira, haien komunikazioa izapidetzeko, eta ez zaizkio jakinaraziko ez egitateetan aipatzen den pertsonari ez beste inori, legeak legokiozkeen prozedura judizialak izapidetzeko hala agindu ezean. Era berean, ez da nazioarteko datu-transferentziarik egingo hirugarren herrialdeetara.

Erabiltzaileak, bere datu pertsonalen erabilerarekin lotutako zalantzak argitzeko, Datuak Babesteko Ordezkarirengana jo ahal izango du: dpd@lantegibatuak.eus.

ZEIN DA DATUAK ERABILTZEKO LEGITIMAZIOA?

Datuen erabilera legitimatzen duen oinarri juridikoa arau-hausteen berri ematen duten pertsonen babesa eta ustelkeriaren aurkako borroka arautzen dituen otsailaren 20ko 2/2023 Legetik eratorritako legezko betebeharrak betetzea da.

NOIZ ARTE GORDEKO DITUGU DATUAK?

Datuak hiru hilabetez erabiliko dira aipatu helburuetarako, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera ikertzeko, salbu eta Lantegi Batuak Fundazioarentzat beharrezkoa denean delituak egitea prebenitzeko bere ereduaren funtzionamendua agerian uztea.

ZURE DATUAK EMAN ETA GERO ZEIN ESKUBIDE DITUZU?

Une oro, emandako datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko, beste norabait eramateko eta haien erabilera mugatzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu, goian aipatu helbidera posta elektronikoa bidaliz edo, bestela, Lantegi Batuak Fundazioko Datuak Babesteko Ordezkariori idatziz (dpd@lantegibatuak.eus), zure NANaren edo agiri baliokide baten kopia erantsita.

Zure eskubideak ez direla behar bezala bete uste baduzu, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamazioa jar dezakezu.